



# zpalak

dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia  
2011ko maiatzaren 28 eta 29 - IRUNEA - EIBAR



ezpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

*Argitaratzaileak:* Kezka dantza taldea eta Duguna dantza taldea.  
*Diseinua eta inprimategia:* Gertu Komunikazio Bide, S.L., Oñati.  
CC-SA-AT Ezpalak 2011  
**<http://www.dantzan.com/blogak/ezpalak>**

# Bikoteko dantza soltea, 2011ko ezpalak



Jota, porrua, fandangoa, arin-arina, orripekua, trikitixa, tarantella, bourrea, ijito-dantzak... bikoteka eta soltean dantzatzen diren dantzak izango dira aurtengo jaialdiaren ardatz: bikoteko dantza soltea, alegia.

Bizkaian, Araban, Gipuzkoan, Lapurdin eta Nafarroako erromerietan indar handia izan du dantza solteak azken bi mendeetan. Duguna eta Kezkako dantzariok saiatuko gara soltean, baina Euskal Herriko ordezkariak nagusia Bizkaiko jota molde zaharrak ikertu eta biltzen lan paregabea egin duen Galdakaoko Andra Mari dantzari taldeak hartuko du oraingoan.

Espainiatik iritsi omen dira dantza eredu horiek, eta jakina da Iberiar Penintsula osoan mota honetako dantzek hedapen handia izan dutela. Horren erakusgarri, Asturias eta Aragoiko jota dantzariak izango ditugu jaialdian. Eta Europara begiratuta, Frantziako Auvergne, Italiako Calabria eta Hungariako Transilvaniatik izango ditugu bikotean eta soltean dantzan egiten duten dantzariak. Bourrea, tarantella eta ijito-dantzak, gure fandango, jota eta arin-arin-ekin aurrez aurre konparatzeko.

***Duguna dantza taldea – Kezka dantza taldea***



ezpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

# Ezpalak, bikoteko dantza solte nazioarteko jaialdia

Iruñean 2011ko maiatzaren 28an - Eibarren 2011ko maiatzaren 29an

## Iruñea. Maiatzak 28, larunbata

17:30ean Kalejira alde zaharreko karraketan barna.

18.00etan Ezpalak, bikoteko dantza solte nazioarteko jaialdia Burgoen Plazan. Euskal Herriko eta atzerriko dantzen erakustaldia:

- Duguna Dantza Taldea (Iruñea)..... 9
- Xinglar (Aragoi)..... 10
- Rareca Antica (Calabria – Italia)..... 11
- Andra Mari (Galdakao)..... 12
- Kikerics (Transilvania)..... 13
- Vezos Astures (Asturias)..... 14
- La Bourrée Gannatoise (Auvergne – Frantzia) ..... 15



## **Eibar. Maiatzak 29, igandea (46. Euskal Jaia)**

12.00etan Euskal Jaiko kalejira Urkizutik Untzagara.

12.30etan Ezpalak, bikoteko dantza solte nazioarteko jaialdia Untzaga Plazan. Euskal Herriko eta atzerriko dantzen erakustaldia:

• Kezka dantza taldea (Eibar) .....	16
• Xinglar (Aragoi) .....	7
• Rareca Antica (Calabria – Italia).....	8
• Andra Mari (Galdakao) .....	9
• Kikerics (Transilvania) .....	10
• Vezos Astures (Asturias).....	11
• La Bourrée Gannatoise (Auvergne – Frantzia) .....	12

14.30etan Bazkaria Untzagako karpan.

17.00etan Erromeria Erromeria Arrabots taldearekin

# Dantza soltea Jardunaldiak,

bikoteko dantza solte nazioarteko jaialdia

Eusko Ikaskuntzak antolatuta

Ezpalak jaialdiaren gai berarekin, jardunaldi akademikoa antolatu du Eusko Ikaskuntzaren Folklore Sailak. Aragoi, Asturias, Gaztela, Extremadura, Galizia eta Euskal Herriko ikertzaileek dantza soltearen inguruko ikerketen eta gogoetak aurkeztuko dituzte.

## **Maiatzak 28, larunbata**

10:00 Aurkezpena: Emilio Xabier Dueñas, Eusko Ikaskuntzaren Folklore Saileko Lehendakaria.

10:15 *Baile al suelto en Euskal Herria. Formas populares y evoluciones coreográficas*,  
Iñaki Irigoien, EDBko presidente-ohia.

10:55 *El baile tradicional en el Oriente de Asturias y el papel de la mujer en el baile tradicional*,  
Marta Elola, Asturias-eko Ekialdeko Etnografia Museoaren zuzendaria, Llanes.

11:35 *Bizkaiko jotea eta porruak. Ohiko transmisioaren azken testigantzak*,  
Andra Mari Eusko Dantzari Taldea, Galdakao.

12:05 *Fenomenología de una romería en Abadiño hacia 1920*,  
Aingeru Berguices, Eusko Ikaskuntza.



12:45 *El baile de rueda como formación coreográfica frecuente: usos y costumbres*, Carlos Antonio Porro, Fundación Joaquín Díaz, Valladolid.

13:25 *El proceso de enseñanza-aprendizaje en la danza. Alternativas para la enseñanza del Arin-arin (Una reflexión desde la propia práctica)*, Carmen Ereño, UPV/EHU.

## **Ekainak 4, larunbata**

10:00 Aurkezpena. Emilio Xabier Deuñas, Eusko Ikaskuntzaren Folklore Saileko Lehendakaria.

10:15 *Jotas y fandangos en el sudeste de Teruel*, Carolina Ibor, Universidad de Zaragoza.

10:55 *La creación del baile al suelto vasco*, Jose Ignazio Ansorena, Donostiako Udaleko Txistulari Taldeko Zuzendaria.

11:45 *El baile a lo suelto en Extremadura*, M<sup>a</sup> Pilar Barrios, Universidad de Extremadura, Cáceres.

12:25 *La Jota y sus variantes coreográficas y dialectales en Galicia*, Gustavo Couto, Mestre de Baile Tradicional, Santiago.

13:05 *Baile a lo suelto: un estilo, diversidad de concepciones*, Josu Larrinaga, Eusko Ikaskuntza.



San Kristobal erromeria Oiz-en (Bizkaia).

*Argazkia: Indalecio Ojanguren – Guregipuzkoa.net CC-BY-SA*



Duguna dantza taldea 1949. urtean sortu zen, Iruñeko udalaren gerizpean. Dantza tradizio oparoa du Iruñeak, eta taldearen helburua berau ezagutu eta zabaltzea da.

Aurtengo jaialdian fandangoa eta arin-arina dantzatuko ditugu taldeko txikiak zein nagusiek, Iruñerrian ezagutu ditugun gisan. Taldeko txistulariek joko dute fandangoa eta Iñaki Leibar eta Itxaso Oregi trikitilari eta panderojoleek, arin-arina. Nafarroan ohikoak izan ditugun doinuak joko dituzte dantzarako.

## Duguna dantza taldea

Iruñea (Nafarroa)

Fandango eta arin-arina



zpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

## Xinglar

### Zaragoza (Aragoi)

### Aragoiko jotak

1989. urtean sortu zen Xinglar taldea. Aragoiko folklorea ikertzea, bultzatzea eta zabaltzea du xede. Dantza ez ezik, abestiak, musika, jantziak, ipuinak, kondairak, erri-toak etab. ere bildu eta ezagutarazi dituzte. Xinglar-ek jotak, abestiak eta bestelako dantza eta musika tradizionalak eskaintzen ditu, eta noiz-ean behin ikusleak ere dantzara ateratzen dituzte.

Ez dago esan beharrik jotak aparteko indarra duela Aragoi. Jotak jo eta kantatzeko tradizio handia dago, baita dantzatzeko ere, eta kas-kainetez lagunduta, urrats berezi eta estilo indartsuz, bikotean eta sol-tean dantzan egiteko era ikusgarria eskainiko dute Xinglar taldeko dantzariak.



# Rareca Antica

## Napoles (Italia)

### Tarantella

“Antzinako sustraiak” esan nahi du Rareca Antica izenak, eta izen horrekin ezagutzera eman da Italiako hegoaldeko musikari eta dantzari talde hau. Ibilbide luzeko musikariek osatzen dute taldea, eta bi dantzari aritzen dira eurekin dantzan. Italiako hegoaldeko eta bereziki Vesubio eta Calabria eskualdeetako herri musikan oinarritutako emanaldiak egiten dituzte.

Italiako hegoaldean bada dantza mota bat bikoteen arteko jokorako bidea ematen duena: tarantella. 6/8 konpasean egiten den dantza da, kaskaineta eta panderoz lagunduta, eta gero eta abiadura bizkorragoa hartzen duena dantzak aurrera egin ahala.



## Andra Mari dantzari taldea

### Galdakao (Bizkaia)

#### Bizkaiko jota eta porrue

Galdakaoko Andra Mari Eusko Dantzari taldea 1955. urtean sortu zen. 70eko hamarkadan Euskal Herriko errito, musika eta dantza zaharren ikerketa, bilketa eta berreskuratze lanari ekin zion, eta talde honen ahaleginari esker berreskuratu ahal izan dira ordurako desagertuta zeuden dantza tradizional asko.

Garai batean Euskal Herriko hainbat plaza eta erromeriatan egiten ziren jota eta porruaren pareko dantza motak. Denboraren poderioz beraien agerraldi esparrua murriztuz joan zen. 60-70. hamarkadetan, hainbat gertakari jasan ondoren, jota eta porrusaldaren “herri-izatera” desagertzeaz zegoela, Andra Mari dantza taldeak Bizkaiko maisu eta dantzariak pausu desberdin asko ikasi eta antolatu zituen: forma sinpleak, aldagaiak, engainuak, etab.; oro har, lehenagoko erromeriei buruzko informazio zabala bildu zuen. Horren emaitzetako bat da orain gutxi argitaratu duten “Erotismoa Euskal Herrian” jotaren inguruko DVD entziklopedikoa.



# Kikeric

## Zajzon (Transilvania)

### Ijitoen dantzak

Transilvaniako Kikerics dantza taldea 1999an sortu zen Zajzon izeneko herrian (Errumania). Dantzariak Transilvaniako hungariarrak dira, beraz euren errepertorioan Transilvaniako herrialde desberdinetako dantzak egiten dituzte. Transilvaniako kultura aberatsa tarteko, Kikerics taldeak Transilvaniako hungaroen eta ijitoen dantzak giten ditu.



Kikerics taldeak euren eskualdeko adineko dantzarekin eta dantzari profesionalekin ikasi eta landu dituzten dantzak. Herriko festetan eta inguruko jaialdietan parte hartzen baina Euskal Herrian egonak dira lehenago ere, 2005ean Iparraldeko Luhusoko Polliki taldearekin talde-truke bat egin baitzuten. Dantza eta musika barru-barrutik bizi dute Transilvanian, eta ijitoen dantzetan bikoteka soltean dantzan egiteko modu bizi eta indartsuak dauzkate.

zpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

## Vezos Astures

### Asturias

#### Asturiaseko tradiziozko dantza solteak



Conceyu de Cultura Tradicional Vezos Astures elkarteak ikerketa etnografikoa eta tradiziozko dantzen eta musikaren zabalpena du xede. Egiten dituen dibulgazio lanen artean azpimarratzekoak dira argitaratu dituen bi DVD, *El baile na tradición asturiana* (2007) eta *Os Reises-Ua mazcarada d'inverno nel occidente d' Asturias* (2010).

Gorteiatzea helburu zuten Asturiaseko tradiziozko dantza solteen adibideak ekarriko ditu Vezos Astures taldeak. Jota da dantzarik zabalduena eta horren bertsio ezberdinak erakutsiko dizkigute; segidan, ohikoa zen jotaren ondoren “a lo ligero” dantzatzea, “arin-arin”, alegia.

Asturiarrek “el baile de arriba” eta “el baile de los viejos” ere ekarriko dituzte. Kaskainetekin lagunduko dituzte euren dantzak, eta gaita, danborra eta panderoen doinura dantzatuko dute.

# La Bourrée Gannatoise

Gannat (Frantzia)

Auvergne-ko bourrea



zpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

Jean Roche-ren eskutik sortu zen La Bourrée Gannatoise taldea, 1965. urtean. Ondarea bildu eta distiratsu eskaintzen erakutsitako lanari esker, Auvergne eskualdeko folklo-rearen ordezkari kulturala bere gain izan du azken hamarkadetan nazioarteko jaialdietan.

Bourréea da eskualdeko dantza ezagunenetakoa, eta horrexek ematen dio taldeari ize-na. Iberiar Penintsulako bikoteko dantza solteetan bezala, badira hiruko konpasean egiten diren bourreak (jota eta fandangoaren erakoak) eta biko konpasean egiten direnak (arin-arin eta porruen erakoak). Bikoteak le-roetan antolatzeke joera izaten dute, eta, ondorioz, Nafarroako ingurutxoeren tankera hartzen dute askotan.



zpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

## Kezka dantza taldea

### Eibar (Gipuzkoa)

Fandangoa, arin-arina, trikitixa eta porrusalda

Eibarko Klub Deportiboaren barruan sortu zen Kezka dantza taldea 1958. urtean. Eibarko dantza ospakizunak sendotu eta bultzatzeko lanean dihardu ordutik.

Fandangoa eta arin-arina, trikitixa eta porrusalda dantzatuko ditugu, Debabarrenako eskualdean azken hamarkadetan erabili izan diren urratsak erabiliz. Kezkako txistulariek lagunduko digute fandangoa eta arin-arinean, eta trikitixa eta porrusaldan, berriz, Adolfo Jainaga arituko da trikitixarekin, eta Unai Narbaiza panderoarekin. Ea tartean Eibar inguruetako erromeria ezagunetan kantatzen ziren dantza-kopla zaharretako ale eder batzuk kantatzen dizkiguten!





# Arrabots

## (Gipuzkoa)

### Arrabotaren erromeria

Musikaren eta dantzaren esparruak biltzen dituen taldea da Arrabots. Arkaitz Miner errenteriarrek ia hogeituro urteko ibilbidea egin du musikari profesional moduan hainbat talde eta bakarlarirekin (Tapia eta Leturia, Ruper Ordorika,...). Gari Otamendi aňorgatarrak dantzaren alorrean egin du bere bidea, Arkaitz Aňorgako Dantzariak eta Donostiako Argia taldeetan batik bat, bai dantzan eta baita arrabota jotzen. Euskal Herriko erromerietan arrabotarekin —edo biolin tradizionalarekin— eta panderoarekin osatutako formazioa ohikoa zela diote hainbat dokumentuk, eta ideia horrekin sortu zen Arrabots. Bi arrabotariekin batera, musikari eta dantzari trebatuek osatzen dute Arrabots. Txus Aranburu ereñozuarraren teklatuak eta Iñaki Otegi aňorgatarraren atabalak eta panderoak osatzen dute taldearen soinua. Eta jende artean egongo da, bi ordu inguruko dantzaldiaren gidari, Jokin Otamendi (Argia, Tapia eta Leturia, Arkaitz) Aňorgako dantza-maisua.



zpapak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia



## Enbor bereko ezpalak

Iruñeko Duguna eta Eibarko Kezka dantza taldeek antolatzen duten Ezpalak jaialdia gai baten inguruan egituratzen da urtero. Hauek dira aurreko urteetako gaiak:

- 2006: Ezpata-dantzak
- 2007: Makila-dantzak
- 2008: Arku-dantzak
- 2009: Karaktere-dantzak
- 2010: Dantza-jauziak
- 2011: **Bikoteko dantza soltea**

Bost urte hauetan Ingalaterra, Flandes, Frantzia, Portugal, Katalunia, Valentzia, Gaztela, Galizia eta Euskal Herriko hainbat bazterretako dantzak eta dantzakerak ikusteko aukera eskaini du Ezpalak jaialdiak. Baina euren arteko aldeak baino gehiago, kultura koreografiko guzti horien arteko antzekotasunak nabarmentzeko ahalegina da Ezpalak. Izan ere, folkloreak herrien arteko loturak aspaldikoak direla erakusten digu, eta dantza tradizionalak Europako eskualdeen arteko musika eta dantzakeren elkartrukea frogatzeko era hobezina dira.




*Erromeria Ixuan (Eibar), XX. mende hasieran.  
Argazkia: Indalecio Ojanguren CC-BY-SA Guregipuzkoa.net*



dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia  
2011ko maiatzaren 28 eta 29 - IRUÑEA - EIBAR

ANTOLATZAILEAK:



DUGUNA



ERAKUNDE ERKIDUNAK  
KULTURA TALDEA

LAGUNTZAILEAK:



Ayuntamiento de  
Pamplona  
Iruñeko Udala



KULTURAN BILKA  
Departamentu (Departamento)  
Kulturaren (Cultura)

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Departamentu (Departamento)  
Kulturaren (Cultura)



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa